

EUSKAL AEKO ESKOLA-JARDUERARI BURUZKO ESTADISTIKA 2009/10 ikasturtea

% 9 igo da lanbide heziketako matrikulazio kopurua

Haur hezkuntzako hamar ikaslelik zazpik euskaraz ikastea erabaki zuen

Euskal AEko ikasle kopurua: Eustaten datuen arabera, 2009/2010 ikasturtean 394.727 ikasle egin zuten Euskal AEn unibertsitateaz kanpoko araututako irakaskuntzaren bat, aurreko ikasturtean baino %3,4 gehiagok. Horietako 367.557 ikasle, %93k, araubide orokorreko ikasketak egin zituzten; kasu horretan 10.178 matrikula berri izan ziren (saldo positiboa), aurreko ikasturtean baino %2,8 gehiago.

Lurraldeka, Araban igo zen gehien matrikulazio kopurua (+%4,6), gero Gipuzkoan (+%3,7) eta, azkenik, Bizkaian (+%2,9).

Araubide Orokorreko Ikasketak: Ikasketak zentro publiko edo pribatu batean egin ziren aztertuz gero ikus daiteke Araubide Orokorreko Ikasleki dagokienez ikasle kopurua orekatua izan zela maila guztietan, HHEn (Helduen Hezkuntzan) izan ezik, maila honetako ikasle %99k zentro publikoa aukeratu baitzuen.

Bestalde, Araubide Bereziko Ikasketetan (hizkuntzak, arteak eta kirolak) dibertsitate handiagoa eman zen. Izan ere, prestakuntza programa horren barruan zentro gutxiago dago eta, sarri, dagoen eskaintzaren arabera aukeratu da zentro publiko edo pribatu batera joan.

1. taula-2009/10 ikasturtean matrikulatu diren ikasleak

	2009-2010 ikasturtea			(%) Matrikulatutako ikasleen urte arteko Δ		
	Guztira	Publikoak	Pribatuak	Guztira	Publikoak	Pribatuak
GUZTIRA	394.727	224.047	170.680	3,4	4,8	1,7
Araubide orokorreko irakaskuntzak	367.557	198.496	169.061	2,8	3,8	1,7
Haur-hezkuntza	92.800	47.891	44.909	1,7	2,5	0,9
Lehen hezkuntza	113.335	56.511	56.824	2,9	3,6	2,3
DBH	69.464	31.324	38.140	0,6	1,7	-0,3
Batxilergoa	28.973	15.182	13.791	0,5	1,3	-0,4
Erdi mailako LH	11.068	6.591	4.477	8,2	11,7	3,3
Goi-mailako LH	16.579	8.678	7.901	9,8	13,9	5,6
Hezkuntza berezia	1.069	509	560	3,5	3,9	3,1
Hasierako lan-kualifikazio programak	4.615	2.496	2.119	-	-	-
Helduen Hezkuntza	29.654	29.314	340	1,6	2,1	-31,2
Araubide Bereziko irakaskuntzak	27.170	25.551	1.619	12,0	13,3	-6,0
Hizkuntzak	23.158	23.158	-	14,4	14,4	-
Musika	2.946	1.801	1.145	-1,0	1,1	-4,3
Arte plastikoak eta diseinua	476	188	288	-11,4	-16,1	-8,0
Kirola	316	130	186	15,3	106,3	-11,8
Dantza	92	92	-	10,8	13,6	-100,0
Goi Mailako Diseinua	182	182	-	19,7	19,7	-

Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eskola-jarduerari buruzko Estatistika. 2009-10

Hiru probintzietan gehitu da lanbide heziketan egindako matrikula kopurua

Lanbide Heziketako matrikulak: Araubide orokorreko ikasketetan aipatzekoa da Lanbide Heziketako matrikula kopuruak izan duen igoera, bai erdi mailan (%8,2) eta bai bai goi mailan ere (%9,8). Guztira 11.068 eta 16.579 ikasle izan ziren, hurrenez hurren. Hiru lurraldeetan eman zen igoera, baina batez ere Araban, aurreko urtean baino %12 handiagoa izanik igoera. Ondoren Gipuzkoak izan zuen igoerarik handiena (%11) eta, azkenik, Bizkaiak (%7).

Haur eta lehen hezkuntza dira oraindik eskari handiena duten mailak; 92.800 eta 113.335 ikasle matrikulatu ziren maila horietan, hurrenez hurren. Alabaina, haur hezkuntzako ikasgeletan aurreko ikasturtean baino igoera txikiagoa eman zen: %1,7 bakarrik igo zen. Lehen hezkuntzan, aldiz, aurreko ikasturtearen antzeko igoera eman zen: %2,9.

Hezkuntza bereziak beste ikasketa batzuek baino ikasle gutxiago du; hala ere, guztira 1.069 ikasle izan ziren, %3,5 gehiago.

Beste alde batetik, helduentzako hezkuntza ematen duten zentroetan araututako modulu-tak edozein egin zuten 29.654 pertsonak %1,6ko igoera ekarri zuten.

Gainerako mailetan, hau da, DBHn eta Batxilergoan, ia ez da aldatu ikasle kopurua aurreko ikasturtearekin alderatuta; 69.464 eta 28.973 gaztek ikasi zuten maila horietan, hurrenez hurren. Azpimarratzekoa da, dena den, batxilergoan lehenengo aldiz lortu dela (bederatzi urte igaro ostean) urte horretan igoera positiboa (%0,5) eta DBHn bigarren aldiz (%0,6).

Araubide bereziko ikasketetako ikasleen %85k hizkuntzei lotutako prestakuntza jaso zuten

Ikasturte horretan 27.170 ikasle izan ziren Araubide Bereziko Ikasketetan, hau da, aurreko ikasturtean baino %12 gehiago. Hizkuntzetan 23.158 matrikula izan ziren, eta horrela, ikasketa hauetako ikasle kopurua handiena lortu zuten.

Gainerako ikasketei dagokienez, 2.946 gaztek musikari lotutako prestakuntza jaso zuten, 476 gaztek Arte Plastikoei eta Diseinuari lotutako ikasketak egin zituzten, 316 gaztek kirolari lotutako prestakuntza jaso zuten, 182k diseinuari lotutako goi mailako ikasketak egin zituzten eta, azkenik, 92k dantzari lotutako ikasketak egin zituzten.

Ikasleen %60k D eredia aukeratu zuten


2009/10 ikasturtean, araubide orokorreko ikasleak honela banatu ziren hizkuntza eredia aintzat hartuta: ikasleen %18 A eredian aritu zen, euskara ikasgai gisa. %23 B eredian aritu zen eta %59 euskara hutsez D eredian.

Irakaskuntza mailen arabera, Haur Hezkuntzan izan zen D eredia aukeratu zuen ikaslerik gehien, guztien %71. B eredia bigarren aukera izan zen eta %24ak aukeratu zuten, eta %4k bakarrik ikasi zuten A eredian. Derrigorrezko hezkuntzaren barruan, D eredia aukerarik hautatuena izan zen: Lehen Hezkuntza %62ak eta DBH %54ak aukeratu zuten. Gainerako ereduari dagokienez, lehen hezkuntzan B eredia guztien %29 izan zen eta A eredia %8. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, aldiz, matrikulatutako ikasle kopurua %28 eta %17 izan zen, hurrenez hurren.

Hezkuntza Berezian, ikasleen %67k A ereduari ikasi zuten, %22ak D ereduari eta %11k B ereduari.

Lanbide heziketan urtero igotzen da euskaraz ikasten duen ikasle kopurua, baina oraindik A ereduari dago ikasle gehien: %74. Batxilergoan, ordea, A eta D ereduari ikasle gehienak antzekoak izan ziren: %45 eta %53, hurrenez hurren.

1. grafikoa.- Ikasleen banaketa hezkuntza ereduaren eta mailen arabera (%)



Iturria: EUSTAT. Euakal AEko eskola-jarduerari buruzko Estatistika. 2009-10

Haur eta lehen hezkuntzako irakasleen % 85 emakumezkoa izan zen

Euskal AEko irakasleak: 2009/10 ikasturtean irakasle kopurua 34.879raino igo zen, 2010. urtean lanean zeuden pertsonen %3,6 arlo horretan aritu zen. Irakasle horien %96 araubide orokorreko ikasketetan aritu zen eta gainerakoak araubide bereziko ikasketetan. Lantokiaren titulartasunari begira, irakasleen %62k ikastetxe publikoetan lan egin zuten, eta %38k ikastetxe pribatuetan.

Araubide orokorreko ikasketetan 33.670 irakasle izan ziren, aurreko urtean baino %2,5 gehiago. Irakasle horietako 16.327 haur eta lehen hezkuntzan aritu ziren eta gehienak emakumezkoak izan ziren (% 85). 15.500 irakasle bigarren hezkuntzan aritu ziren, derrigorrezkoan eta derrigorrezkoa ez den hezkuntzan, eta %58 emakumezkoak izan ziren.

2009/10 ikasturtean Araubide Bereziko Ikasketetan 1.209 irakasle aritu ziren ikasleak prestatzen, eta horien %53 emakumezkoak izan ziren.

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Matxalen Plágaro Alonso

Tel.: +34-945-01 75 99 Faxe: +34-945-01 75 01.

[Euskal AEko Eskola-Jarduerari buruzko Estatistikaren gaineko prentsa-ohar gehiago.](#)

[Euskal AEko Eskola-Jarduerari buruzko Estatistikaren gaineko datu-bankua.](#)